

# Ikuskizuna Mintxetan



**erabili euskara**  
utiliza el euskera

LANEAN  
IKASKETETAN  
SARE SOZIALETAN  
EROSKETETAN  
KIROLA EGITEAN  
FAMILIAN  
LAGUN ARTEAN  
JAIETAN  
AISIALDIAN

**CURSO 16/17**  
**IKASTURTEA UDAL**  
**EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak • clases de euskara



## 16-17 IKASTURTEA

Matrikulaldia zabalik

Izena emateko epea  
otsailaren 10era arte.

Langabetu, ikasle eta gurasoek  
**MATRIKULA ERDIA**

Bekatzeko sistema ikasturte bukaeran

Etor zaitez eta informazio  
guztia emango dizugu.

ELGOIBAR: 09:00 – 13:00 / 14:30 - 17:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Kalebarren plaza, 2 – Tel.: 943 742 731

[udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus](mailto:udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus)



Baserriz baserri, kantuan eta eskean

## ELGOIBARKO IZARRA SANTA AGEDA BEZPERAN

- Otsailaren 4an, larunbata, 10:00etan elkartuko gara Kalegoen plazan.
- 22:00ak arte jardungo dugu kantuan eta eskean. Aiastiako soziedadean afalduko dugu, eta bazkaltzeko tarteak ere hartuko dugu.

Urtarrilaren 31 izango da izena emateko azken eguna:  
943 741 626 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)



IBON SERRANO LASA



## “Egitan, gizaseme hauek ez omen ziren, ez errege, ezta hiru, ezta ekialdekoak ere”

**A**r-Khadi gorentasun hori, elgoi-bartarron bihotzak epeldurik, gamelu baktriarren soinetan, etxeratu dira jada ekialdeko hiru erregeak Media eta Persia urrunetarat.

Hara non eta akemenidar jatorri exotiko horrek piztu du nigan Balthazarren beltzarantasa ikertzeko grina. Bada, bisaita azpisahariarra baino, ez al legokio gehiago profil indoiraniar gisakoa?

Txantxa aurrez saihestearren, arraza gai démodé sentikorra izanik, jakin beki gorentasunak estimuaren gailurrean daukadala beltzen leinua. Lerdentasuna, dotoretzia, musikaltasuna, alaitasuna, eta baita euskaltzaletasuna ere, egozten baitizkiot black-power delakoari.

Ikerketa epifanikora itzuliaz eta Wikipedia lagun, emaitza zinez bitxiez egin

dut topo azti hauen inguruan. Erran nahi baita jatorrizko San Mateoren testamentutik eliza ofizialak erabat itxuraldatu duela tradizioa. Bada, egitan, gizaseme hauek ez omen ziren, ez errege, ezta hiru, ezta ekialdekoak ere!

Balthazarri (Baltamir, Bel-Sar-Utsor) gagozkolarik berriz, are kontu sinesgaitzagoa: Mansa-Musa Maliko errege dirdiragarrian inspiratuaz, XVI. gizaldian baino ez baitu elizak beltz bilakatzen!

Baina zur eta lur utzi nauena benetan: Alegia Espainian, ba omen dela eztabaida sutsua Balthazarren irudikapenaren inguruan. Ohikoa boluntario gizagaixoa betunez lohitzea izan bada, egon badago iritzi publikoa Balthazar benetako beltzaran batek antzeztu dezan galdegiten duena.

Orduan ohartu naiz euskal egoera epifaniko paregabeaz eta beste behin ere gure “partikularitateaz”. Esker onez bihotza puzturik, 2017an ETBn igortzeko gabon diskurtsoa prestatu dut oroi-garri. Hona hemen hainbat pasarte aukeratu (motel eta ahots sudurkariz irakur beza gorentasunak).

*“Euskaldun@k, harro gagoz barriro. Beste erkidegotan, kabalgatari buruzko eztabaidatan katramilaturik, eta, gu geu, beti lez, estatuan, eta estatutuan, aitzindari. Horren lekuko, oroi dagigun, Donostian, hainbat urtez, naturalki, liskar barik, Agbounike jauna, udaltzaina bera, izan dogula Balthazar errege. Hortaz, puztu dagiguzan bularrak”.*

Bai, Baudelaire zen *le droit de s'en aller* aldarrikatu omen zuena.



ARKAITZ IRURETA ARRIETA

## “Horren harira, jentillaren etorrerarekin ere demasa egin genduala etorri jata burura”

**I**-bon Vivant! Zuria bai oporrei txispia ataratzia! Aspaldixan oporren ingurukonere gogoetaz lagun artian jardun arren, ipar poluan bakarrik bakardian bakarriketan nabillen sentsaziua daukat. Zure testua ikusitta, kontu honi adarretatik kolpe egituko momentua ailegatu dala pentsatu, eta publiko egingo dot. Zure omenez!

Gabonak erregiekin amaittu ez ezik, hasi ere erregian diskurtsuarekin egitten dabe askok. Sarri pentsatzen dot gurasuen ilusiuva umiena baiño haundixagua dala. Erdi Aroko pertsonaia honek urtero gauza bardiña esan arren, harriduraz ikusi dot oindio diskurtsua kritikatzin

dala, monarkia bera kritikatu biharrian. Mendetan eman ez diran aldaketak esperoko ete zittuen?

Nik ETBko zure diskurtsua nahixago, nahiz eta motel eta ahots sudurkariz irakurtziak barria eragin didan, apaiz eszenifikazioa apurtuz.

Diskurtsuen aurretik ere, Gabonetako argixek, erregalu-iragarkixek eta jatekuen preziuen ixoeriak adierazten dabe Gabonak badatozela. Hónek jaixok konsumo basatira mugatu diran susmua daukat.

Edozein kasutan, eskerrik asko Balthazar eta lagunetaz erakutsi diguzunagaittik. Horren harira, azken jentillaren etorrerarekin ere, berdintasunaren izenian demasa

egin genduala etorri jata burura: Olen-tzero leku batzutan neska zan arren, mutil mozorrotu eta emakume loreontzi bat jarri diogu aldamenian. Lehengusuak aurrekuan edarra bota zigun; eurenian, Domingo Mari, Olentzero emakumezkoaren laguntzaile ei da! Oraindik norbaiti Olen-tzera deitzeko tentaziua emango dio, tripa kendu eta St. Niklausen koka-kola kolore gorrixekin sexy-sexy jantzi.

Eta promestutakora bueltatuz, ohartu al zara abuztuko oporrak izan ezik, egutegian jai egiten diltugun egun guztiak, astebukaerak barne, kutsu politiko eta erlijiosokoak direla? Ez al dira norbanakoen askatasunaren oinarrien kontrako?



ARANTZA ETXEBERRIA

Irakaslea

## Chrysallis

izan zen ikasgai hori irakatsi ziguna.

Egoera honek gure eskolan, hausnarrean jarri gintuen Haur Hezkuntzako irakasleagoa hasieran, eta eskola osoa jarraian. Irakasleon hainbat jarrera, baieztapen, lan, fitxa, irudi, kuestionatu eta baztertu ditugu, berriak eraikiz.

***“Guk hurrei ez diegu esaten neskek edo mutilak diren, beraiek aurrez zer diren adierazten ez badigute behintzat”***

Dagoeneko guk hurrei ez diegu esaten neskek edo mutilak diren, beraiek aurrez zer diren adierazten ez badigute behintzat. Neska gehienek bulba dute, eta mutil gehienek zakila dute esaten

dugu, badaudelako zakila duten neskek eta bulba duten mutilak.

Sexuazio prozesuan denok garatzen ditugu ezaugarri maskulino eta femeni-noak, batzuk ikusgarriagoak (keinu eta hitz egiteko era, arropak...), beste batzuk ezkutuagoan (gorputzeko ileak...). Beraz, haurrari genitalak begiratu ondoren ez da komeni zein generoko edo sexukoa den adieraztea, sexuazioan arlo psikologikoa eta sozialak ere eragina izaten dutelako.

Hizkuntza erabiltzen hasten denean hasten da haurra neska edo mutila sentitzen den adierazten.

Irakasleok asko daukagu ikasteko oraindik; haurrak adi entzun beharrean gaude, benetan haur bakoitzaren zorian-tasuna ardura bazaigu behintzat.

Eta Chysallis da adingabe transexualitate egoeran dauden gurasoen elkarte, norbaitek zalantzarik balu, bertan aurkituko du laguntza, aholkua, edo sosegua, gero eta haur gehiagorengan azaleratzen baita egoera hau.

**E**skolako haur txikienekin aritzen naiz lanean, baina nik ere asko ikasten dut beraiengandik.

Ni piloto automatikoarekin ibili izan naiz urteetan eta umeei esan izan diet: zuk bulba/alua daukazu, beraz neska zara. Edota zuk zakila daukazunez, mutila zara.

Horiek izan dira nire eta nire lankideen hitzak askotan, gehiegitan. Baina, eskolan zakila zeukan haur batek esan zigun bera neska zela, eta berretsi egin zuen, eskolan eta etxean. Eta denok onartu genion, bera neska sentitzen zenez neska zela. Bera



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARNO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus  
barren@elgoibarkoizarra.eus  
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoek Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arizababala, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien Ansoa, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Alkandia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

hitza zurea da

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► MOTORDUNEI

1997ko otsailaren 12an Karakate, Irukurutzeta, Agarreburu Trekutz eta inguru hori interes naturaleko gunea izen-datu zuten. Horrek esan nahi du kokapen bereziko gunea dela, bereziki babestu beharreko gunea, balore ekologiko, kultural eta ekonomikoagatik, eta nekazaritza, abeltzaintza eta baso uzta-penagatik. Parke arkeologiko ere bada mendi hau, erromatarren kanpamendu bat. 18 trikuharri, zutarri bat, sei elurzulo...

Babes hau askoz zorrotzagoa da, gunea hau Euskadiko Korridore Ekologiko izendatua dagoelako. Eta kategoria horretan daude, besteak beste, Karakate-Irimo, Aratz, Izarraitz, Aizkorri, Pagoeta, Jaizkibel, Adarra... Eta denetan motorkak debekatuta daude. Kultur Ondarea (Erreferentzia: Aranzadi), Auzitegi Gorenak dio ondasun kulturala babesteko legeria dela, sortu daitekeen min edo triskantzari aurre egiteko sortua.

Lur publikoetan ibiltzeko ere, lur horretan ibiltzea baimenduta egon behar da, eta hori seinaleztatuta egon behar da. Eta lur pribatuan ibiltzeko ez daukazu inongo eskubiderik. Zuek ezin zarete nahieran ibili. Mendi gain honetan ez dago biderik. Gizaki eta abereek egindako lerro bat bakarrik, eta basoetan berdin, noski.

Mendi honetan 26 hektarea dauz-

kagu garbi. Karakaten eta Atxolinen sail handiak. Eta Irukurutzeta eta hango zurtarria gureak dira.

Gure salaketa motordunen kontra doa. Eta zuek aurrerantzean ere gure lurretara etorriko zarete diozue. Talde horretakoak zarete, jendea aurre egiten dituzuenak? Baserritarrei mehatxu egin eta eraso egiten diezuenak? Gure lurrak hondatzen dituzuenak? Zuzenketarik ez badago, mehatxutzat hartuko dugu eta epaitegietan ikusiko dugu elkar.

### JULIAN EZENARRO

#### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigarrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitz argitaratuko.



## Iluminada Tadeo Camino

2017ko urtarrilaren 18an hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere. Era berean, San Lazaro egoitzako langileek eskainitako arreta ere eskertzen dute.



## Aita Agirre eraikina berrantolatzeko proiektua ezagutarazteko webgunea zabaldu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak Aita Agirre eraikina berrantolatzea erabaki zuen, eta sortu nahi duten ekipamendu berrien kultur jarduerarekin zerikusia duten eragileei egingo diete lekua. Orain arte eman diren eta emango diren pausoen inguruko informazioa eta dokumentazioa (planoak, infografiak, fotomuntaiak, e.a) webgune batean bildu dituzte. Interesa dutenek, beraz, [www.aita-agirre.net](http://www.aita-agirre.net) webgunean eskuratu ahal izango dute informazio guztia. Erabilera berrietarako erabiliko diren espazioak moldatzeko eta birbanatzeko obrak zehazten ditu web orriak. Elgoibarko Udalak nabarmendu duenez, proiektuaren inguruko iritziak emateko aukera ere badago, "balorazioak" izeneko atalean. Aita Agirre proiektua prozesu parte-hartzailearen baitan ari dira garatzen, eta "proiektuaren jarraipen zehatza" egiteko aukera eskaintzeko zabaldu dute webgunea.

Eraikinak Aita Agirre plaza du aurrez aurre. Eraikin honek, bestalde, egitura simetrikoa duten fatxada eta teilatua ditu, hain zuzen ere, mantendu eta eraberritu egin behar direnak. Era berean, eraikinaren barrualdean, hainbat esku-hartze egingo dira programaren premiei erantzungo dieten "gune polibalente eta malguak" lortzeko. Eraikin historikoa berritu egingo dute eta atzealdean eranskin berri bat eraikiko dute. Bolumen berri bat sortuko dute instalazioak eta eskailera multzoak kokatzeko, baita ibiltzeko modukoa izango den terraza bat ere.



Elgoibarko Udalaren esanetan, Aita Agirre eraikina eraberritzearen helburua elgoibarrentzat "komunitate-ekipamendu bat" egitea da, bertan, udalerriko kultur jarduerak egin ahal izateko. Hortaz, eraberritze horren izaera "publikoa eta soziala" izango dela azpimarratu dute.

## Mendaroko Garagartza auzoa urak hartu zuen berriz ere astelehen gauean

Iragarria zegoen, eta bete egin zen. Azken egunetako euriteen ondorioz, gure erreken ur emaria nabarmen handitu zen, eta arazoak sortu ziren. Altzolako estazioan, esaterako, 68 litro pilatu ziren astelehenean metro koadroko, eta maila laranja-raino iritsi zen. Deba ibaiak gainezka ere egin zuen Altzolan, eta ohiko arazoak eragin zituen Mendaron, Garagartza auzoan. Deba ibaia hain zetorren hazita ezin zuela Kilimon erreka-ur emaria behar bezala hartu, eta behetik gora hasi zen ura, estoldetatik gora. Hala, Garagartzarako punturik baxuena urak hartu zuen, eta kalteak eragin zituen.



## Hotz egin arren, giro onean joan zen San Anton Eguna

San Anton Eguna isilik eta hotz esnatu zen Elgoibarren. Hala ere, jai egun horretarako iragarrita zeuden ekitaldiak bere horretan burutu ziren, eta giro onean joan zen eguna. Meza nagusia izan zen goizean, eta parrokiako abesbatzak hartu zuen parte. Herriko Antzokian jende asko batu zen eguerdian Musikeneko perkusio taldearen kontzertuaz gozatzeko, eta etxeko txikienek milaka salto, jauzi eta barre algara egin izan zituzten gaztelu puzgarrietan. Arratsaldean, berriz, erraldoi eta buruhandien kalejira egin zen, herriko dultzaineroekin eta zezenzikletekin.



## Santa Ageda bezperan baserriz baserri kantuan jarduteko izenematea zabalik dago



1994an berreskuratu zuen Elgoibarko Izarrak baserriz baserri kantuan eta eskean aritzeko ohitura zaharra, eta aurten ere ez du hutsik egingo baserritarrekin duen hitzordura. Santa Ageda bezperan irtengo dira urtero bezala, otsailaren 4an. Goizeko 10:00etan batuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta, baserri

auzoetan arituko dira koplak kantari 22:00ak aldera arte. Amaitzeko, Aias-tiako soziedadean afalduko dute.

Interesatuak urtarrilaren 31ra arte daukate izena emateko epea. Telefonoz, 943 741626 (Imanol) telefonora deituta edo [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzita eman daiteke izena.

## Mintxeta Atletismo Taldearen loteria kobratzeko oharra

Mintxeta Atletismo Taldeak saldu-tako loteriak saria izan du, eta hori kobratzeko astean hiru egun jarri dituzte: astelehena, asteazken edo ostiralean, 19:00etatik 20:00etara, elkarteak Mintxetan daukan egoitzan kobratu ahal izango da.

## Gure Esku Dago taldeak egin du errifaren zozketa

Gure Esku Dago 30.000 euroko sari bat eta mila euroko hamar sari zozketatu ditu. 30.000 eurokoa 55.513 zenbakiak jasoko du. Mila eurokoak, hauek dira: 158.639, 97.686, 89.983, 129.784, 29.273, 145.022, 20.987, 82.542, 124.071, 117.574. Sari-dunek [gedelgoibar@gmail.com](mailto:gedelgoibar@gmail.com) helbidera idatzi behar dute.

## Sendi Anaitasuna elkartearen batzarra, domekan

Mendaroko Sendi Anaitasuna elkarteak urteko batzarra egingo du, domekan. Hiru gai izango dituzte: lazko diru-kontuak, zuzendaritzari galderek eta bazkideen zerrenda irakurtzea. Gogorarazi dute bilerara agertzen ez diren bazkideek 10 euroko isuna izango dutela. Bilera Azpilgoetako elizan izango da, 12:30ean.

## Odol ateratzeak, gaur zortzi

Gipuzkoako odol bankua gaur zortzi iritsiko da Elgoibarrera. 18:30etik aurrera egingo dituzte odol ateratzeak odol emaileen egoitzan.

# Bi txapeldun olinpiko Mintxetan

Juan Mugertza Nazioarteko Krosa jokatu da domekan Mintxetako zirkuituan, European Athletics Association (EAA) kategoriarean. Mintxeta atletismo taldeak lan handia egin du aurten ere munduko korrikalaririk onenak Elgoibarrera ekartzeko, eta besteak beste, 2016ko Olinpiar Jokoetako bi txapeldun izango dira dokeman Mintxetan: Ruth Jebet eta Conselus Kipruto. Bi txapeldun olinpiko izango dituen Europako lasterketa bakarra izango da aurtengo Mugertza krosa. Guztira 700 bat korrikalari jardungo dira lehian, hamar lasterketatan banatuta. Ikuskizuna ziurtatuta dago.

- AINHOA ANDONEGI -



Eguaztenean aurkeztu zuten krosa udaletxean, eta leku berean egingo diete atletei ongi-etorria, zapatuan.

Mintxeta Atletismo Taldeak gogotik egin du lan aurten ere, eta dena prest dauka astebururako. Zapatu iluntzean egingo diete harrera korrikalariei udaletxean (19:30), eta domekan ospatuko da atletismoaren jai handia Mintxetan. 90.000 euroko aurrekontua izango du aurtengo krosak, eta, besteak beste, korrikalarien artean bi txapeldun olinpiko izango dira, bata gizonetzkoetan eta bestea emakumezkoetan: Conselus Kipruto keniarra eta Ruth Jebet bahraindarra. Horrez gain, Euskadi, Nafarroa eta Kataluniako selekzioak lehiatuko dira junior eta jubenil mailetan. Guztira 700 bat atleta arituko dira lehian, hamar lasterketatan banatuta. 10:00etan hasiko da krosa. Senior mailako emakumezkoen lasterketa 12:30ean izango da, eta 13:10ean gizonetzkoena. Sarrera sei euro kobratuko dute (jublitauvek lau euro eta umeek 2 euro).

## OMENALDIK

Omenaldientzako tartea ere izango asteburuan zehar. Kiro-lari, eta bereziki, atletismoari lotutako lau elgoibartar hil ziren

2016an, eta haien familieri "omenaldi xumea" egingo diete zapatuan, korrikalarien harrera ekitaldian: Rikardo Garate Kirol Zinegotzia, Angelo Iriondo urteetan Mugertza kroseko esatari lanetan ibilitakoa, Jose Gurrutxaga atleta, eta Mikel De Pablo antolakuntza taldeko kidea. Era berean, C.D. Elgoibarko kideei orogarri bat emango diete, aurten klubak 100 urte beteko dituelako.

## ANTOLAKUNTZARAKO LAGUNTZA BILA

Datorren urtean Mugertza Nazioarteko Krosaren 75. edizioa jokatu da, eta Mintxeta atletismo taldeak herritarrei deia egin die antolakuntza lanetan laguntzeko. Urteak dira Mintxetako kideak krosa antolatzen hasi zirela, eta jende berria behar dute taldean. "Ilusioa eta lanerako gogoia daukan jendea nahi dugu taldean", adierazi du Zigor Diez Mintxeta taldeko kideak. Azken batean, ilusioz lan egiten dute, baina urtero-urtero krosa antolatzeak "lana" dauka, eta datorren urtean 75. urteurrena izango dela kontuan hartuta, zerbait berria prestatzeko ahalegina egin nahi dute.





## DOMEKAN KONTUAN HARTZEKO KORRIKALARIAK



### AWEKE AYALEW

(Bahrain, 1993)

- ◆ 2016ko Mugertza Kroseko irabazlea.
- ◆ 2015eko Munduko Kross Txapelketan 10. postua.
- ◆ Aurtengo denboraldian Atapuercan eta Venta de Bañosen irabazi du.



### CONSELUS KIPRUTO

(Kenya, 1994)


- ◆ 2013ko Mugertza kroseko irabazlea.
- ◆ 3.000 metroko oztopodun lasterketan Txapeldun Olinpikoa 2016ko Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan.
- ◆ 3.000 metroko oztopodun lasterketan bi aldiz munduko txapeldunordea.



### JOSHUA CHEPTEGEI

(Uganda, 1996)

- ◆ 2016ko Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan 6. egin zuen 10.000 metrokoan, eta 9.a izan zen 5.000 metrokoan.
- ◆ 2014ko txapelduna junior mailan, 10.000 metroan.
- ◆ 2015ean 3. egin zuen Elgoibarko Mugertza krosean.



### ILIAS FIFI

(Espainia, 1989)


- ◆ 2016an Europako txapel-duna, 5.000 metroan.
- ◆ 2016an Europako kros txapelketan seigarren egin zuen.



### RUTH JEBET

(Bahrain, 1996)

- ◆ 3.000 metroko oztopo lasterketan Txapeldun Olinpikoa 2016ko Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan.
- ◆ Munduko errekorra ondu zuen 2016an.
- ◆ 3000 metroko traba lasterketan munduko txapelduna izan zen 2014an.



### SENBERE TEFERI

(Etiopia, 1995)

- ◆ Munduko kros txapeldunordea 2015ean.
- ◆ 5.000 metroan munduko txapeldunordea 2015ean.
- ◆ 2016ko Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan bosgarren egin zuen 5.000 metroan.



### ANCUTA BOBOCEL

(Errumania, 1987)

- ◆ 2016an laugarren egin zuen Europako kros txapelketan.
- ◆ 2015ean bosgarren egin zuen Europako kros txapelketan.
- ◆ 2016an seigarren egin zuen Elgoibarko Mugertza krosean.



### TRIHAS GEBRE

(Euskal Herria, 1990)

- ◆ 2016an Espainiako kros txapelduna.
- ◆ 2016an zazpigarren egin zuen Europako kros txapelketan.
- ◆ 2015ean 15. egin zuen munduko kros txapelketan.

## Javi Dominguezek hamabosgarren egin du Hong Kongo ultra lasterketan



**M**unduko ultren txapelketako (Ultra Trail World Tour) lehen proba jokatu zuten asteburuan Hong Kongen, Vibram Hong Kong izeneko 100 kilometroko mendi lasterketa. Javi Dominguezek proban parte hartu zuen, eta hamabosgarren postuan sailkatu zen. Gustura itzuli da lortutako emaitzarekin eta bizitako esperientziarekin, ibilbidea bere ezaugarrientzako egokiena ez zela aitortu duen arren. "Asfalto gainean ondo moldatzen diren korrikalarietzako aproposa zen ibilbidea. Horrez gainera, lehen 50 kilometroak oso lauak ziren, eta 900 metro zeuzkan igo genuen mendirik garaienak. Gogortasun gehiagoko ibilbideetan hobeto moldatzen naiz ni". Guangzhou hirira bisita bat egiteko astia ere izan zuen Dominguezek, han baitago bere babesleeta bat den Vibram enpresaren lantegietako bat.

## San Anton Txapelketako finalak, gaur

San Anton Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte gaur gauean, 22:00etatik aurrera, Ikastolako frontoian. Promesa mailan, Agirreamalloak eta Ibarlozak Elolaren eta Garmendiaren aurka jokatu dute. Senior mailako finalean, berriz, Salaberria eta Aranguren, batetik, eta, Espinal eta Ceceaga, bestetik, ailegatu dira finalera.



## Emaitzak

### FUTBOLA

Anaitasuna 4 – Haundi 0 (Oho. erreg.)  
Elgoibar 0 – Iluari B 2 (1. erreg.)  
Elgoibar 0 – Anaitasuna 1 (Oho. jub.)  
Urola 1 – Elgoiba 3 (Jub.)  
Anaitasuna 1 – Elgoibar 1 (Oho. kad.)  
Billabona 2 – Elgoibar 0 (Inf. 1. maila)  
Elgoibar 2 – Lengokoak 2 (Inf. txiki)

### ESKU PILOTA

San Anton Txapelketa (2. finalerdiak)  
Agirreamalloa / Ibarloza 22 – Zabala / Zubeldia 13  
Alberdi / Arandia 20 – Salaberria / Aranguren 22

### SASAKIBALOAIA

Take Coach 37 – Viento Sur Elgoibar 48

### ARETO FUTBOLA

Virgen del Portal 3 – Concepto Egile 2 (Naz. B)

### ESKUBALOAIA

Alcorta 27 – Usurbil 24 (Senior giz.)  
Ereintza 20 – Lauko Elg. 24 (Senior emak.)  
Salento 24 – Haritza 27 (Senior giz.)  
Usurbil 28 – Tecnufile 35 (Jub. neska.)  
Usurbil 26 – C. Astigarraga 22 (Kad. neska.)  
Berstain 28 – Usurbil 20 (Jub. mut.)  
Urkunde 22 – Usurbil 28 (Kad. mut.)

## Agenda

### ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 21  
10:00 Txarriduna – Ereintza (Inf. neska.)  
11:15 Bacalao Alcorta – Ibaiondo (Inf. neska.)  
12:45 Cometel – Ordizia (Inf. mut.)  
17:45 Urkunde – Zarautz (Kad. mut.)  
19:30 Berstain – Zarautz (Jub. mut.)  
Domeka, 22  
10:00 Dario – Urnieta (Kad. neska.)  
11:30 Salento – Urola (Senior giz.)  
13:00 Alcorta FG – Barakaldo (Senior giz.)

### ESKU PILOTA (Ikastolako frontoian)

San Anton Txapelketako finalak  
Barixakua, 20  
22:00 Agirreamalloa/Ibarloza – Elola/Garmendia  
23:00 Salaberria / Aranguren – Espinal / Ceceaga

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 21  
10:00 Elgoibar – Orereta Kafea A (Infantilak)  
12:00 Elgoibar – Arrasate (Oho. kad.)  
16:30 Elgoibar – Sorluze (Jub.)

## Igerilari elgoibartarrak maila onean, Azpeitian

Kirol Zehaztasun Ligako bigarren jardunaldia jokatu zen aurreko larunbatean Azpeitiko igerilekuan. Elgoibarko Igeriketa Taldeko igerilariak emaitza onak eskuratu zituzten. Iker Calvok 100 metro libreko proba irabazi zuen, 1.18,29ko denborarekin eta Yeray Dobarro sailkatu zen bigarren 1.24,36ko denbora eginda. 50 metro libreko proban, berriz, bigarren postuak eskuratu zituzten, bakitza bere adin tartean Markel Larrañagak, Jon Martinek eta Nerea Arregik.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Urazandi auzoko espaloi bat oso estua da:** "Urazandi auzoan, errebuelta baten dagoen etxearen aurrean, espaloi estu bat dago, ezertarako balio ez duena. Estuegia da eroketa karroarekin edo umearen aulkiarekin joateko, eta gurgildun aulkian doazeneztat, zer esanik ez! Oinezkoentzat ere, ez da batere eroso. Betidanik egon da espaloi hori hor, betidanik ezagutu izan dugu horrela, eta auzotarrok beste aldeko espaloitik ibili izan gara beti. Azkenaldian Urazandin irisgarritasuna hobetzeko lan asko egin dira, baina espaloi hori oraindik ez dute konpondu. Une egoikia izan daiteke hau, obrak egiten ari dira auzoan eta ondo legoke espaloi hau erabilgarri jartzea. Eskerrik asko".



**Erreserbatutako aparkalekuak hutsik egoten dira gehienetan:** "Guass dantzalekua zegoen aparkalekuan erreserbatutako aparkalekuak daude, baina gehienetan hutsik egoten dira. Ez dauka logika handirik urtean bi-hiru aldiz erabiltzen diren aparkaleku erreserbatu horiek urteko egun gehienetan hutsik egotea. Herritarrok aparkatzeko lekuak behar ditugu. Benetan behar al dira erreserbatutako aparkaleku horiek guztiak?".



**San Roke auzoan zebrabide gainean aparkatzen du jende askok:** "San Roke 14 eta 16 zenbakien inguruan zebrabide gainean uzten du autoa jende askok. Ondorioz, oinezkoek behar ez den lekutik gurutzatu behar izaten dugu bidea, umeekin, gurgildun aulkiekin edo dena delakoarekin, eta hori oso arriskutsua da, bereziki, ilun dagoen orduetan edo euria egiten duenean. Auto jabe horiei eskatu nahi diet zebrabidea errespetatzeko, mesedez".



**Baserri bideetako kartelak berriro dituzte Mendaron:** "Baserri izenak eta bideak agertzen diren kartelak berriro egin dituzte Mendaron, eta oso txukun geratu dira. Txalo bat dagokionari lan hori egiteagatik".

## Apirilaren 5ean, goizeko zazpiretan, iritsiko da Korrika Elgoibarrera



Elgoibarko AEK euskaltegiko ardura-dun Amaia Larrañaga oholiza gainera igo zen Pirritx eta Porrotx pailazoan *Tipi tapa* Korrika ikuskizunean. Hain zuzen ere, Korrikari eskainitakoa izan zen pailazoan azken saioa. Beste zenbait elgoibartarrekin batera igo zen AEKko arduraduna oholtzara eta primizian eman

zuen albistea: Korrikaren lekukoa apirilaren 5ean, eguaztena, ailegatuko dela Elgoibarrera. Goiz esnatu beharko dugu egun horretan Korrikari harrera egiteko, 07:00etan iritsiko baita Elgoibarrera. Herria zeharkatu ostean, Mendaro aldera hartuko du bidea euskararen aldeko lasterketa.

## Eneko Etxanizek eta Jon Etxeberriak hasi dute aurreku txapelketa



Aurreku eta Soinu Zahar ligaxketako lehen saioa jokatu zuten Legazpin zapatuan. Aurreku txapelketan 2006 eta 2010 urte bitartean jaiotako hamabost mutilek hartu zuten parte, tartean Elgoibarko Inazio Bereziartua eskolako bi ordezkariak: Eneko Etxanize eta Jon Etxeberria. Bi dantza egin zituzten, Alpagata edo eskua aldatzeko soinua eta Agurra. Txapelketa batean parte hartzen zuten lehen aldia zen arren, "maila onean" aritu zirela nabarmendu dute arduradunek. Txapelketako hurrengo saioa Billabonan izango da, urtarrilaren 28an. Han ere izango dira Inazio Bereziartuako dantzariak: Amaia Sasiain, Oihane Agirrebeña, Aimar Almortza, Markel Goenaga eta Gaizka Uranga, hain zuzen ere.

## Ander Errastiren liburu bat japonierara itzuli dute

Ander Errasti elgoibartarrak *Global Production Networks: Operations design and management* izeneko liburua argitaratu zuen 2014an, Floridako Taylor&Francis editorialarekin, eta orain japonierara itzuli diote liburua. Enpresen ekoizpen eta logistika operazio kudeaketa, Japoniako filosofia, metodo eta teknikak ditu oinarrian liburuak, eta idazlearen esanetan, Japonian saltzea "errekonozimendu aipagarria" da berarentzat. Liburuak ingelesez hitz egiten den herrialdeetan dago salgai (Estatu Batuetan, Kandaan, Ingalaterran, Australian) eta Internet bidez Alemanian, Japonian, Suedian, Norvegian, Belgikan, Frantzia, Italian eta Espainian ere eros daiteke. Bigarren edizioan da dagoeneko.



## Zigilu erakusketako bildumagileei harrera egingo diete bihar

Altzolarren Dorretxea Filatelia Elkartek joan zen zapatuan inauguratu zuten San Anton jaietako zigilu erakusketak, eta domekara arte egongo da zabalik. Aurten ere 80tik gora bilduma jarri dituzte ikusgai, eta bihar egingo diete harrera bildumagileei. Biharko ekitaldira, bestalde, CD Elgoibarko ki-deak ere gonbidatu dituzte. Aurten C.D. Elgoibarren mendeurrenari eskaini diote erakusketa, eta klubeko arduradunei ere emango diete oroigarria. 13:00etan izango da ekitaldia, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## Amorantek kontzertua eskainiko du gaur zortzi Elgoibarko Herriko Antzokian

Herriko Antzokiko oholtzan bakarrik eta, ohi legez, filtrorik gabe arituko da gaur zortzi Iban Urizar musikari elgoibartarra (20:30); *Amorante*, izen artistikoz. Kontzerturako sarrerak 5 euroan jarriko dituzte salgai, lehiatilan bertan.

Musika esperimental eta kantu tradizionala uztartzen ditu bakarkako proiektu honetan Urizarrek, eta esperimentazioaren eta inprobisazioaren bidea lantzen ditu. Amorante gisa Elgoibarren emango duen bigarren kontzertua izango da barixakukoa eta aitortu du herrian aritzeak "halako tentsio puntu bat" edo "errespetua" sortzen diola, jakin badakielako publikoaren

parte handi bat ezaguna izango duela, baina aldi berean, edo horrexegatik, berezia ere izango dela dio. Harrera ona izan du Amorantek bi urtean, eta publiko zabala batu du kontzertuetara, kontuan izanda Amorante bezalakoak *underground* eremuetan mugitu izan direla gehiago orain arte. Pozik dago lortutakoarekin, eta aurreratu du laster binilozko singlea argitaratuko duela, bi kanturekin: *Brueghel zarra* rumba kutsuko abestia eta Joxe Mari Iparragirrenen *Manuela* abestiaren moldaketa. Singlea Amoranteren kontzertuetan eskuratu ahal izango da, baina digitalan ere emango ditu bi kantuok.



## Angela Davisen 'Women, race and class' liburua euskaratu du Danele Sarriguartek

Danele Sarriguartek, Angela Davisen *Women, Race and Class* liburua euskaratu du 'Emakumea, arraza eta klasea' titulupean. Elkar argitaletxeak argitaratu du liburua, Eskafandra Feminista bildumaren barruan. Angela Davis pentsalari eta aktibista ezagunak emakume, beltz eta klase sozial apalekoa izateak dakartzen hiru zapalkuntzak lotu zituen aurreneko aldiz liburu honetan. Esklabotza sistema, mugimendu abolizionista eta sufragista, abortua edota etxeko lanak problematizatzen ditu, eta horrekin, ordura arteko feminismoa, hau da, feminismo zuria, arraza eta klase menperakuntzekiko itsu izan zela agerian utzi. Hiru aldiz zapaldua denak hiru aldiz errebelde eta hiru aldiz aliatu izateko aukera eta zoria duela aldarrikatzen du pentsamendu feministaren lan mugarririk bat den honetan.



## Celtas Cortos taldeak Udal Musika Bandarekin eskainiko du kontzertua

Elgoibarko Udal Musika Bandak eta Celtas Cortos taldeak kontzertua eskainiko dute Elgoibarren, ekainaren 16an, Kalegoen plazan. Iazko rock kontzertu berezia eskaini zuen Udal Musika Bandak eta ekitaldi haren arrastoan etorriko da aurtengo emanaldia ere. Iazko saioak arrakasta handia izan zuten, eta ikusleen eskaera horri erantzun nahian antolatuko dute aurtengoa. Celtas Cortos taldeak 30 urte bete ditu, eta urteurrenaren barruan musika banda eta orkestra batzuekin kontzertuak eskaini izan ditu. Horien artean Irungo musika bandarekin eskaini zuen taldeak saio bat Donostiako Aste Nagusian, eta banda horretako kideetako bat Gorka Mujika elgoibartarra zen. Orduan bururatu zitzaion Mujikari Elgoibarko bandarekin ere egin zitekeela zerbait, eta Jesus Cifuentes Celtas Cortos taldeko abeslariak, Txomin Mujika Elgoibarko Bandako zuzendariak eta Udaleko Kultura Sailak baietza eman zioten.



Celtas Cortos taldeak Gaztela-Leoiko Orkestra Sinfonikoarekin eskaini zuen kontzertuko une bat.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Orduka lan egiteko prest nago: garbiketa lanetan nahiz adinekoak zaintzen.  
☎ 602 490 595

Nagusiak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 631 185 896

Etzeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna moduan.  
☎ 631 552 986

Matematikako klase partikularrak ematen dizkiet DBH, Batxilergo edota unibertsitateko ikasleei. Matematikan lizentziatua. ☎ 667 625 233

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Interna ere bai.  
☎ 602 193 095/612 216 458

Pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia dut. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago.  
☎ 686 077 316

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke, asteburuetan.  
☎ 651 156 456

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut.  
☎ 681 065 683

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat.  
☎ 635 005 536

Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago. Asteleheneretik ostegunera gauzez lan egiteko prest.  
☎ 651 156 456

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 680 808 125

Tabernan, sukalde laguntzaile edo adinekoak zaintzeko prest nago.  
☎ 616 328 060

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak ditut.  
☎ 631 562 461

Adinekoak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest nago. Arratsaldez.  
☎ 648 039 187

Pertsona euskalduna adinekoak zaintzeko prest.  
☎ 617 571 210

Informatika eskolak ematen ditut.  
☎ 680 944 294

Edozein lan egiteko prest nago: umeak edo adinekoak zaindu, etxeak, portalak, elkarteak, tabernak garbitu... Sukalde laguntzaile, zerbitzari... Garbiketa lanetan esperientzia handia daukat. Geriatria ikasketak ditut eta elikagaiak manipulatzen titulua ere bai.  
☎ 616 441 825

Lanerako prest nago, orduka.  
☎ 622 162 798

**Eskaintzak**

Asteburuetan lan egiteko pizza banatzailea behar da. Motorrerako gidabaimena beharrezkoa.  
☎ 943 740 196

**ETXEBIZITZAK.....**  
**Alokairua**

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Bi edo hiru logelakoa.  
☎ 602 490 595

Etxe polita alokatzen da, Mendaron. Erdigunean, udalaxe alboan. Hiru logela, bi komun, berogailu zentrala...  
☎ 660 042 159 (arratsaldez deitu)

Etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ 637 966 749 / 651 156 456

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 723 121

Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 622 162 798

**GARAJEAK.....**

Garajea hartuko nuke alokairuan Urazandin.  
☎ 609 951 243

Garaje itxia alokatzen dut Basarten.  
☎ 943 531 131

**BESTELAKOAK.....**

Ohe artikulatu individuala salgai. Prezioa adosteko prest nago.  
☎ 689 299 702

Goiko Errota elkarteak bazkide berriak behar ditu.  
☎ 626 797 027 (Julen)

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.  
Iragarkari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.  
Iragarkari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

**Etxebizitza, lokal eta garaje osatua dago gure komunitatea. Garajeek ere ordaindu behar dituzte administrazio gastuak?**

Administrazio gastuak eta administratzaileak jasotzen duen diru-saria gastu orokorrak dira, eta hortaz, jabeakide guztien artean ordaindu beharrekoak dira; garaje-jabeek barne.

Profesional horrekin izenpetzen den kontratuan argi jasoko da zenbateko diru-saria jasoko duen eta horri BEZa gehitu beharko zaio. Gastu orokorra izanda, jabeakide guztiek erantzun beharko diote horri.

Legearen arabera, gastu orokorrak honako hauek dira: eraikinari eta haren elementuei eusteko beharrezkoak direnak, eta indibidualizatzeak edo banatzeak ez diren karga eta erantzukizunak. Beraz, eraikinari dagozkion gestio-kontuak komunitateari dagozkio, tartean administratzailearenak, eta horrenbestez, gastu orokorretan sartu behar dira.

Bizilagun batek ezin du ahaztu komunitateko parte dela eta bere betebeharrak dauzkala, tartean administratzailea kontratatzeak suposatzen duen gastuari, tasei, zergei eta aseguru-gastuei erantzutea.

**AHOLKUA: Administratzailearen lanaren onuradun denak dira, etxejabeak nahiz lokal jabeak ere. Horregatik, denen artean ordaindu beharreko gastua da hori. Partaide-kuotaren arabera ordaindu beharko dute.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** *Etaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*





Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRE**Neko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Elene**, astelehenean 7 urte egin zenitue-lako. Etzekoen, eta bereziki, Noraren partez. Muxu handi bat.



Zorionak, **Estanis**! Gaur 8 urte, danborjole! Muxu handi bat familia-koen eta bereziki, Danelen partez.



Zorionak, **Noa**, asteazkenean 5 urte bete zenitue-lako. Muxu potolo bat etzeko guztien partez, printzesa.



Zorionak, **Ibon!** Primeran ospatu dituzu zure 8 urteak! Muxu bat familia-koen partez.



Zorionak, **Unai!** 6 urte handi! Patxo handi-handi bat etzekoen, eta bereziki, Peruren partez.



Zorionak, **Hai-zea**, urtarriaren 23an 4 urte potolo egingo dituzulako. Muxu pila bat familia-koen eta bereziki, Izairen partez.

## IKASTOLAN, DENOK GARA GU

*HH O (2016an eta 2017an jaiotakoak), otsailetik ekainera hasteko, matrikulazio aldia zabalik urtarrilaren 16tik 27ra*



elgoibar ikastola



[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)  
943 744441

*Ordutegi zabala: 7:30-19:30. Jai-zubietan eta oporretan irekita*





**CORDON VILARCHAO**

**943 740 570**

San Roke, 7 behea  
Pol. Olaso - Olasope kalea,  
18 - 25 eta 26 moduloa  
[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)

**DEKORAZIOA**

Korpo eta beniko esakidura  
Zirkuk egarria  
Laketak: eguztirik, PVC,  
Perluak, kokone



**BASIC**

BETAURREKO PROGRESIBOAK

**197€**



Uzuri

optika audio

Kontakua: 943 744 441. Edo: 943 744 442. Edo: 943 744 443.

# A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com

Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

## 20 BARIXAKUA

**21:30** Bideo forum: *Katmandu, un espejo en el cielo*. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

## 21 ZAPATUA

**11:00** Filatelia Elkarteetako Euskal Federazioaren lehen asanblada. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**13:00** C.D. Elgoibarren mendeurrenari eskainitako filatelia erakusketako kolaboratzaileei opari-banaketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**19:30** Juan Mugertza krosekoko korrikalariari harrera. Udaletxeko pleno aretoan.

## 22 DOMEKA

**10:00** Juan Mugertza Nazioarteko krosa. Mintxetan.

**11:00** San Bizente Eguna. Meza eta prozesioa, San Rokeko ermitan. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

**12:30** Sendi Anaitasuna elkartearen bigarrena Azpilgoetako elizan.

## 25 EGUAZTENA

**19:00** Bilkura irekia.

EH Bilduk bilera antolatu du, 2016-2019 Legealdi Plana konpartitu eta aurkezteko. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 27 BARIXAKUA

**20:30** Kontzertua. Amorante. Herriko Antzokian.



**Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian**

**edo**

**www.barren.eus webgunean**

**943 744 112**

**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR**



**Flexiahorro**  
**% 0,55**

### ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

**ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA  
SEIHILEKO NATURALEN ARABERA**

**LIKIDEZIA: HASIERATIK.**

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

**IRAUPENA:**

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZIASEGURU ETA AURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Asesurancas-koak Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontrolatzen baduzu, honako hau opartuko diegu: luppenare marko osetzuko 10 CNTZI, jaxaria gorde eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 15,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR,  
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72






## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K	<b>09:00 - 22:00</b>	<b>20:00 - 22:00</b>	* Fernandez: Herriko enparantza, 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142
	20 Barixakua GARITAONANDIA	* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:	* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638
	21 Zapatua ETXEBERRIA	BARRENETXEA (Elgoibar)	* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384
	22 Domeka ETXEBERRIA	Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277	
	23 Astelehena FERNANDEZ*	<b>22:00 - 09:00</b>	
	24 Martitena YUDEGO	MANDIOLA (Eibar)	
	25 Eguaztena ORUESAGASTI*	San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533	
26 Eguena BARRENETXEA			
27 Barixakua IBAÑEZ*			

## 'Hasta el último hombre'

20 barixakua: 21:30  
21 zapatua: 19:00 / 22:15  
22 domeka: 19:00  
23 astelehena: 21:30

'Axel'  
(Euskaraz)

22 domeka: 16:30

'Paterson'  
(Ongari zinekluba)

26 eguena: 21:30



## LAN-DEIALDIA

## ELGOIBARKO GAZTELEKUKO HEZITZAILE LANPOSTURAKO DEIALDIA

## ESKAITZEN DA:

- Gaztelekuko hezitzaile lanpostua

## ESKATZEN DA:

- Gizarte Hezkuntzako, Gizarte Laneko, Gizarte Zientzielako edo antzeko erdi edo goi-mailako titulazioa izatea.
- 3. hizkuntza eskakizuna, EGA edo titulu baliokidoren bat

## BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Espezializazio ikaslaroak izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Nerabezarora eta nerabeen errealitatea ezagutzea.
- Planifikatzeko, ebaluatzeko eta antolatzeko gaitasuna izatea.
- Euskaingintzan jardun izana.
- 4. hizkuntza eskakizuna izatea
- Informatika eta teknologia berrien gaineko ezagutza izatea.
- Elgoibarkoa izatea.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:  
urtarrilak 23, asteazkena

atxubriamalka@elgoibarkoizakaria.eus  
Ubilarte 4, behea. 20870 ELGOIBAR  
943 741 628





Manu Sanchez

## Unai Villena



Gabon zahar gaueko brindisean, betekadaz gainezkaturiko eta balio sinbolikoz hustutako jaien erdian topatu zenuen zeure burua beste behin ere, betiko lekuan, urte berrirako urteroko asmo onak berritzen. Xanpainarekin topa egin bitartean, urteotan metatutako promesa bete gabeen zerrenda maiztua errepikatu zenion zeure buruari isilpean, 2017an beteko dituzulako itxaropen etilikoz: maite dituzun pertsoneri eta jardueri denbora gehiago eskaini, egiteko garrantzitsuak premiazkoei lehenetsi, merezi ez duten kontuekin zeure burua ez estutu... eta beste ha-maikatxo kontu, xanpain-burbuilak bezain eferbeszente eta galkor.

**A**spaldi da umea ez zarela, aspaldi gauza askorenganako ilusioa galdu zenuela. Aspaldi zin egin zenion zeure buruari behar bezalako intsumisioa egingo zeniela hurrengo urteko Gabonei, eta hala ere,

Urtarrilak 20 dituen honetan, Urteberri egunetik gaur arte igarotako astei erreposoa egiteko aprobetxatu duzu arratsalde hotza. Joandako egunen orriak agendatik erauztean denbora esku artetik itzuri zaizu, eta ziurtasun ilun batek hartu: azken urte guztiak bezalaxe hasi duzu aurtengoa ere, albo batera utziz zeure buruari egindako promesak. Ihesbide posiblerik gabe inposatzen zaizun egunerokotasun tematiak betikorantz zaramatza zuzen-zuzen: errutina astun hitserantz. Horregatik irten zara etxetik paseo noragabea, sentipen hori alboratu nahian, zeure burua galdu eta gogoeta ezerosoak eteten saiatzeko.

Baita lortu ere, harik eta Sigmako txoko honetaraino iritsi eta espero gabeko galderekin behaztopa egin arte: Eta itsas zaldira igoko bazina? Halako uneak bilatuko bazenitu bizitza kolorez ziprizontzeko? Ume baten gisan jokatzeraz ausartuko bazina noizean behin?

*“Azken urte guztiak bezalaxe hasi duzu aurtengoa ere, albo batera utziz zeure buruari egindako promesak”*



## *Kontxi Unanue Olaizola*

*Puntada bakoitza  
hain da gordiña  
zauriek denbora bihar debela  
esaldi jakiña.  
Kontsuelorik ez,  
zaztada samiña,  
egunetik egunera  
xamurtuko dala miña.  
Hutsuna galanta, ama  
malkuek irteteko griña  
zure bihotzaren zati bat  
izango da neuriaren mamiña.*

*Eskerrik asko jaso dogun hitz, muxu eta besarkada bakoitzagaittik.  
Etxekuak.*



## *Manuela Artetxe Galdos*

2016ko abenduaren 22an hil zen, 88 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## *Tomas Astigarraga Lizarralde* "Torre"

2016ko urtarrilaren 18an hil zen, 86 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, urtarrilak 21ean,  
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.




V. URTEURRENA

## *Mari Karmen Gabilondo Etxabe*

2012ko urtarrilaren 19an hil zen, 58 urte zituela.

*Haztea ez da gauzak  
gure atzean uztea,  
gure barnean  
gordetzea baizik.  
Zurekin hazten jarraitzen dugu*

*Etxekoak*



# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
943 75 60 44 / 628 529 692  
Faxa: 943 75 60 37  
pagoerrotaiturgintza.com  
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behea B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net



Azpigoeta 7 behea - Mendaro  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintza@tellabide@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urzuzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
lendu@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

## AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus



Olaso Industriegunea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
capinteriaimara@hotmail.com



aroztegia - olzorik - esse-aldaketak

Kurutx-gain Industriegunea, 9  
20850 Mendaro  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaoroztegia@gmail.com



AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri Industriegunea, 1-0/ 1-P  
943 740 547



## LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosof@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com

## IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurrekin ere  
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behea  
EIBAR

Ernesto: 620 060 104  
Fran: 600 465 789

## ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea


Killimon hirtbidea, 1 - Mendaro  
943 530 358

iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10. 6.B  
Elgoibar  
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 889



ELEKTRIZITATEA S.L.  
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Raimon: 677 512 462  
Bulegoa: 943 200 697

# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura